



Semaforo gorria eskualde osoan

Beterri-Buruntzako sei herrialdeen intzidentzia tasa metatuaren adierazlea gorritz agertu zen urriaren 26an, Osakidetzaren eguneroko boletinean / 2-7

AIURRI

Ziurgabetasuna kirol denboraldi berrian

Hasi orduko etenaldiak ematen ari dira. Urnietako KE elkarteko futbol atala eta Andoaingo Leizaran eskubalo taldea aztergai. / 12-13



Elkarrizketa:
Leire Ibarbia
Osakidetzako
langilea
administrazioan / 2-3



Elkarrizketa:
Irati Rivas Zainketa
Intentsiboetako
Unitatean lanean
ari den erizaina / 5



Elkarrizketa:
Miren Ibañez
Tolosako Asuncion
Klinikan lanean
ari den erizaina / 4

Istuitza Garden

Enkarguak jasotzen ditugu

Karrika, 9 - ANDOAIN

943 592 448

09:00-13:30/16:00-20:00

info@floresistuitzagardenloreak.com

Aurten ere azaroaren erdira arte zabalik

Landarez eta lore naturalez osatutako zentroak. Artifizialak ere aukeran

Andoni Urbistondo URNIETA

Pandemiaren lehen larroan dago Leire Ibarbia andoaindarra (44 urte), administratzaile jardunean, eta baliabide falta handia dutela dio. Politikariengan jartzen du fokua, haiena omen egun dugun osasun egoera larriaren erantzukizuna. Eta Urnietari buruz, astebete atzera hartu ziren neurriak urria hasieran hartu behar zirela dio, eta Udalak ondo jokatu zuela. Jaurlaritzak, aldiz, ez. **Zer lan egiten duzu, Leire?**

Administratiboa naiz Osakidetzan, pertsonal arloan: anbulatorioetako ordezkapenak lotzen ditut, errefortzuak bilatu...

Zein da egungo egoera ordezeko edo errefortzuei dagokionez?

Erizain eta mediku faltarekin gabiltza orain, gaizki. Erizain laguntzaileak, zerbitzuetako langileak, sukaldariak horien falta dugu ere. Administrazio laguntzaileak, bagaude, baina arlo horretan ere larri samar gabiltza.

Zergatik, baliabide falta hori?

Ba jende asko kanpora joan zelako murrizketak egin zirenean. Kanpora joan zen lanera edo beste enpresetara edo beste lanbide batean hasi zen. Denetik dago. Ordezkapenak egiten dituzten askok udan, Eguberrietan eta Aste Santuan bakarrik zeukaten lana, eta baldintza horietan zaila da bizitza proiektu bat garatu ahal izatea. Lan ziurragoa zuten beste nonbaitera joan ziren, eta orain komeri asko dugu. Orain murrizketarik ez dago, kontratatu dezakegun guztia kontratatzen ari gara, baina iraganeko murrizketak asko nabaritzen ari gara. Jende askok lehenetsi du soldata apalagoa, baina iraupen luzeagoko kontratuarekin. Euskaditik kanpo jende asko joan da, kontratu luzeak lortu dituelako. Eta orain haiek gure lan poltsatik kanpo daude, noski.

Eta zer sentitzen du zuloak bete behar dituen langile batek, egoera horren aurrean?

Ba gaizki. Inpotentzia latza sentitzen dut. Anbulatorioetan lanean ari den jendea nola dagoen ikustek ere arduratzen nau, ordu pilo bat egiten ari delako, eta horrek bere ondorioak ekarriko dituelako. Kalean ere jendea haserre dago, eta herritarra gurekin ari da ordaintzen haserre hori. Errua, baina, ez da gurea, erabaki okerrak hartu dituzten politikariena baizik. Osakidetza ezin du nahi duen guztia egin, politikariek diotena egiten du.

“Politikarien erabaki okerre baldintzatu dute osasun egoera”

LEIRE IBARBIA OSAKIDETZAKO LANGILEA ADMINISTRAZIO SAILEAN

Aste honetan hasiko omen da egoera baretzen Urnietan; herritarrei arduraz jokatzeko eskatu die, test-a egiteko, eta kontaktu zuzena izan badira, informazio hori jakinarazteko



Leire Ibarbia andoaindarra Urnietako gizarte bizitzan murgilduta dago. AIURRI

Koronabirusak dena jan du, ezta?

Bai, baina pandemia aurretik zeuden gaixotasunek hor jarraitzen dute: minbiziak beranduago detektatuko dira, bihotzeko arazoak aztertzeako kontsultak ez dira egiten anbulatorioan dagoeneko, aurrez-aurreko arreta murriztu egin da... Jendeak hori ikusi egiten du, eta bere ondorioa atera: medikuak denbora pasa daudela. Ba ez. Medikuek eguneko 60 lagun artatzen dituzte, telefonoz, eta telefonoz gauzak diagnostikatzea oso zaila da. Txertoa iritsi, iritsiko da, laster izatea espero dugu, baina pandemia honek zehar kalte asko utziko ditu denbora luzean. Ez da gauza bera minbizia garaiz edo ez antzematea, eta hori jasaten duen herritarrek medikua, erizain edo zaindaria erekin du tratatu zuzena. Horiek dakite psikologikoki zer nolako kolpea hartzen duten gaixoei, eta alboan dauden guztiei.

Nola zaudete Osakidetza langileak?

Estresa, antsietateak jota, fisikoki eta psikologikoki oso nekatuta... Albo kalte asko ekarriko dizkigu pandemiak. Gauza asko nola egingo zenituzkeen garbi daukazu, baina ezin duzu egin, eta horrek halako estutasuna sortzen du langileengan. Ordezkapenak egiten dituenak badaki zer nolako bizitza daraman. Sakelakoaren baitan uneoro, orain astebete hemen, hurrengoan bi egun han... Aldi baterako langileek, gainera, kontratuak lotuz, ezin dute oporririk hartu, atsedena hartu, eta horrek asko erretzen du. Eta jendearekin egiten dugu lana, ez, adibidez, kotxeko piezak ordezkatzeko. Esan nahi dut, hurreman zuzena dugu pertsonekin, eta psikologikoki prestatuta egon behar dugu: izan garbitzaileak, zaindaria, administrariak, erizainak edo medikuak. Erreta eta nekatuta bazaude, ez duzu egokia den arretarik emateko modurik. Langileak hobeto zaindu behar dira: plaza gehiago, kontratu luzeagoak, aldikako langile kopurua murriztu... Orain kontratu luzeagoak egiten ari dira, baina dagoen egoeratik. Pandemia hau bukatzen denean iraganeko egoerara bueltatuko gara, zoritxarrez.

Politikoei murrizketarik ez dela egon errepikatzen dute, eta zuek murrizketak direla eta kexu. Zein iritzi sumatzen duzue jendearengan, egoera horretan?

Jendeak uste du funtzionarioak garela, eta funtzionarioek ez dutela lanik egiten. Ohikoak dira harrera guneetan hitzordua exijitzea, gure soldata eurek ordaintzen dutela eta beste esanez. Guk ere gure zergak ordaintzen ditugu. Kritikatzeko gaituztenoi gure tokian jartzeko esango nieke. Ordubete batekin nahikoa litzateke. Komenigarria da tarteka bestearen lekuan jartzeko ariketa egitea. Nik ikusten dudana da jendea %150a ematen ari dela, eta horrela gaude otsailaz geroztik. Luze doa, dagoeneko.

Baliabide faltaren egoera nork sortu duen garbi duzu, ezta?

Bai, oso. Politikak baldintzatu du osasuna erabat. Egia da ekonomia ezin dela gelditu, ni naiz hori onartzen duen lehena, eta bizitza soziala ere gustukoa dut, denok bezala, baina ezin baldin bada, ba ezin da. Murrizketak jarri behar badira indarrean, ba jarri egin behar dira. Ez dira jarri, eta orain muturreko erabakiak etorriko dira, neurriak berandu hartzeagatik.

Berandu al goaz?

Noski. Orain zer egin behar da, dena itxi? Ni ez naiz aditua, baina nire ustez agerikoa da ekonomia lehenetsi dela osasuna baino gehiago. Hauteskundeak egon ziren orain hilabete batzuk, baina hauteskundeak baino lehenago erabakiak, murrizketak indarrean jarri behar zituztenek, ez zituzten jarri, eta iritsi berriak direnek ere ez, denborarik ez dutelako izan. Haurrak dituenak ikusi du, ikasturte hasierarekin ez dela inolako plangintzarik egin... Dena azken unean. Biharko utzi da gaur egin behar zena, eta halaxe gaude.

Bueltarik ba al dauka, krisiak?

Bai, baina gogorra izango da: ekonomikoki, sozialki eta osasun arloan. Depresio asko etorriko dira, gaitzak beranduago detektatuko dira... Epe luzean naba-rituko da hori nire ustez.

Zer diozu Urnietari buruz? Markak hausten ari da kutsadura kopurua eta intzidentzia tasa... Zuk susmoak bazenituen.

"DEPRESIO ASKO ETORRIKO DIRA, GAITZAK BERANDUAGO DETEKTATUKO DIRA"



Ikasle taldea PCR probak egitera hurbildu zen Urnietako Udal pilotalekura. AIURRI

Bai. Udalak orain lau aste jaso zuen abisua Hernaniko ambulatorioaren bitartez, transmisio komunitarioa gertatzeko arriskua zegoela, baina Udalaz gaineko politikariek arazorik ez zegoela esan eta kontrako mezua zabaldu zuten komunikabideetan. Momentu hartan neurriak hartu izan balira, egun ez genuke daukagun egoera larria izango. Hori nire iritzia da, garbi uzte aldera. **Alegia, egoera okertzen hasia zela duela lau aste.**

Bai, transmisio komunitarioa gerta zitekeenaren susmoak zeuden. Ez zen ziurra %100, baina gerta zitekeela bai. Hortik abisua. Irizpide jakin batzuk erabiltzen dira: zenbat kutsatu dauden, ze adinetakoak, asintomatikoak diren edo ez... Inork ez dio beste inori nahita pasatzen birusa, hori garbi dago, baina nahi gabe ere birus transmisoreak gara. Akats txiki bat egin, ohitura jakin batengatik, eta kutsatu egin dezakegu. Jende asko kutsatu da, besterik gabe: batzuk pasa egin direlako, eta beste batzuk tontakeria txiki bategatik. Orain lau aste Udalak bere lana ondo egin zuen, transmisio komunitario arriskua egon zitekeela zabaldu zuen, kontuz ibiltzeko, baina gero beste mezu bat etorri zen Jaurilaritzatik. Eta ez dakit zergatik, ze alderdi politiko berdinekoak dira. Jaurilaritzak esan zuen ez zela hainbesterako, baina azken asteetako datuek erakusten dute bazela. Abisua pasa den unean neurriak hartu izan balira, ez ginen orain gauden egoeran egongo. Eta ea nola bu-

katzen dugun, etxeratzea etortzen den edo ez, edo ez den ezbeharren bat gertatzen Urnietan.

Datuak beldurtzeko modukoak izan dira. 87 kutsatu urriko lehen 20 egunetan.

Eta gehiago aterako dira, kutsatu horiek antzeman direnerako beste batzuei pasa dietelako birusa (elkarrizketa pasa den ostiralean egina da). Hirugarren aste hau kritikoa izan da, eta urriko azken astean hasiko da egoera apurtxo bat hobetzen. Arazoa asintomatikoak dira, horiek jende asko kutsatu baitute. Sintomak badituzu, medikuari deitu, eta normalean etxean geratzeko esango dizute. Denek ez dute medikuaren agindua beteko, agian, baina %95ak bai. Baina sintomarik ez dutenekin zer? Asintomatikoa dena ez da arduratsu ibilikoa, normala den bezala. Batzuk bai, baina asko ez, eta akats txiki batekin birusa atera egingo da, ondokoa kutsatzeko.

Baheketak egin dira, baina orokorrean badirudi jendeak ez duela testa egiteko konpromiso handirik erakutsi. Urruti ikusten du birusa, %40 joaten da batez beste. Ezin da herritarra behartu, juridikoki, hori da arazoa. Osakidetza birtartekoak jarri eta jendea ez azaltzea ere... Ordutegi eremu

"EZ DA PLANGINTZARIK IZAN. BIHARKO UTZI DA GAURKO ZENA, ETA HALAXE GAUDE"

handia jarri dute, jakinda jendea lanean dagoela eta beste. Testa egitea gogo kontua da, joaten ez dena gogorik ez duelako da. Hiru egunetan jarri baita baheketa egiteko, larunbat goiza barne. Zorionez, Urnietan erantzuna ona izan da. 1.567 egin dira, dena, egun hauetan Urnietan, eta 1.800 herritar deitu zituzten.

Eta ez bazara joan, zer gehiago egin behar da? Egin analisisa, gauza serioa da, eta denontzat ona. Pentsa norbaitek, jakin gabe, birusa norbaiti pasa diola, eta kutsatu horrek gaizki pasa duela... Ez zaio beldurra eduki behar birusari, baina errespetu osoa bai, eta besteengan pentsatu ere bai. Hor bada halako mantra bat, norbaitek positibo eman, eta norekin egon den esan nahi ez duena... Esan lasai, kutsatzea gehiago ez zabaltzeko ezinbestekoa da. Izan gaitezen txintoak.

Zergatik arduragabekeria hori?

Ez zaielako mezu garbirik eman. Zer saltzen da komunikabideetan? Udan ez al zegoen birusik? Oporretara joan al zen, akaso? Hemen zegoen, baina ez zegoen interesik hori saltzeko. Beste interes batzuk zeuden, ekonomia, turismoa... Ulertu dezaket hala izatea, baina akaso beste era bateko turismoa planteatu beharko litzateke, ez? Orain zer, mundu guztiari sartu zaio beldurra bat-batean? Denok geunden barrez udan, desekalatzea egin genuen gustura, eta orain beldurrak jota, 'zer egingo digute' galdetuz? Komunikabideek zabaldu dute ezer gertatzen ez zela zioen mezua, eta jendarteak sinetsi egin du. Gutxietsi egin

nahi izan da birusaren hedapena, eragina. Ni zurrunbiloaren erdian nago, eta bestelako informazioa daukat, baina ni ez bezala dagoena erreta egotea normala da: orain neurri hauek bai, gero ez, orain birusa ez dago, gero bai, gripe arrunt bat da, musukoak eraginkorrak dira atzo, bihar ez... Ez edo bai esan orde, hain garbi, esan liteke "ez dakigu balio duen"... Baina "ez du balio" esan da, oinarri zientifikorik gabe. Txotxongiloak bailtzen tratatzen gaituzte.

Zer esango zenieke konspirazioak eta besteri buruz mintzatzen direnei, gripeak askoz jende gehiago hiltzen duela diotenei?

Ez naiz medikua. Gripeak lehenagoko patologiak dituenak hiltzen ditu, batez ere. Birus hau ezezaguna da, ez dakigu nola jokatuko duen. Jendea hiltzen du, eta epe luze osoan ondorioak ditu. Eta asintomatikoengan ere ondorioak izan ditzake lau edo bost urte barru. Orain erietxeetara gazteak ari dira iristen... Baten batek birusa sartu duela esaten dutela? Berdin zait. Orain lehentasuna birusa da, txerto bat bilatzea kalte gehiago eragin ez ditzan. Konspirazioak egon diren edo ez aztertuko da egoera larri hau pasatzen denean, orain ez. Orain dakiguna da gripea baino oldarkorragoa dela, gripea pasa egiten delako.

Eszeptikoak ere ez dira gutxi.

Ez, eta horiek eskarmentu txiki bat pasatzea nahi nuke, ZIU Zaintza Intentsiboen Unitate batean ordu batzuk pasatzea, edota gertuko senide baten egoera gertutik ezagutzea. Nik gauzak txukun egiten ez baditut eta kutsatzen banaiz, nire ardura da, baina nik txukun jokatu ez eta beste norbaiti pasatzen badiot birusa, orduan jada ondorioak biderkatu egiten dira. Joka dezagun zuhurtziaz.

Ze udazken, negu aurreikusten duzu?

Gorria, ze gripeak ere gogor joko du, baina litekeena da musukoarekin gripearen eragina apalagoa izatea. Ezin da jakin. Gripeak dakartzanak akaso beste nonbaitetik etorriko dira.

"HIRUGARREN ASTE HAU KRITIKOA IZAN DA, ETA AZKEN ASTEAN HASIKO DA EGOERA HOBETZEN"



Eider Mendoza. IREKIA

Zaharren egoitzara mugitzeko aukera dago

Herri batetik bestera joateko debekuak ez die egoitza-zentroetara bisitan doazenei eragiten

Erredakzioa ANDOAIN

Gipuzkoako Foru Aldundiak asteartean garrantzia handiko kontua argitu zuen, adineko pertsonen bisitak egiteari buruzkoa. Eusko Jaurlaritzak iragarritako azken neurriek dagokienez, besteak beste, beste udalerrri batzuetara joateko debekua ezartzen da. Baina neurri horiek ez die eragiten egoitza-zentroetara bisitaldia egitera joaten diren pertsonen. Egoiliarrek bisitak jasotzen jarraitu ahal izango dute, nahiz eta haien senideak beste udalerrri batean bizi.

Bisitaldiak ezinbestekoak dira egoiliarrentzat

Beti ere egoitzan bertan agerraldi aktiborik ez badago. Bisitak segurtasun-neurri guztiak zorrotz egiten jarraituko dira. Gipuzkoako Foru Aldundiako bozeramailearentzat bisitak "ezinbestekoak" dira egoiliarrentzat, horregatik, bisitak bermatzen jarraitzearen alde egin du, eta dagoeneko zirkular bat bidali da zentro guztietara, esanez bisitak Eusko Jaurlaritzaren 36/2020 Dekretuaren salbuespenen artean daudela. Mendokotasuna duten pertsonen laguntzarekin eta zaintzarekin lotuta baitaude bisitaldiak.

"Ospitalak berriro gainezka egiten hasi dira"

MIREN IBAÑEZ TOLOSAKO ASUNCION KLINIKAN ERIZAINA

Koronabirusak jotako gaixoei lan egiten du andoaindarrak, Tolosako Asuncion klinikan zein Donostia Ospitaleak Amarako egoitzan egokitu duten solairuan

Xabier Lasa ANDOAIN

Buru belarri sartuta zabilta pandemiaren gaian, bi ospitaletan...

Bai. Orain urte bete bukatu nituen erizaintzako ikasketak, eta segituan bietan lan egiteko aukera eman zidaten. Une honetan, Donostian, Amarako eraikuntzan gaixoak artatzeko ireki duten laugarren plantan ari naiz. Bertan ingresatuta daudenekin medikazioaren administrazioa, zainketa, txukuntasuna... egitea egokitzen zait. Asuncion klinikan, berriz, larrialdietako sailean nabil; horra heltzen diren pertsonak izan daitezke koronabirusagatik ala ez. Diagnostikoaren arabera, ingresatuta ala etxera bidaltzen dira, behar den irtenbidea eskaini eta gero.

Egia esan, bi lanpostuek denbora laburrean eskarmentu handia pilatzeko aukera eman didate, eman didatenez.

Asuncion Klinika konfinatu behar izan zuten urriaren 10ean...

Bai, baina normalizatzen ari da egoera klinikan, lehengo astean ohiko operazioak zein kanpo kontsultak abian jarri zituzten berriro.

Osasun arloko langileek gainerako herriarrek baino neurri zehatzagoak hartu beharko dituzue egun...

Bai, oso zorrotza da protokoloa, bai pazienteen osasuna baita geurea bermatzeko asmoz. Lan-kideen artean giroa ona da, kontziente gara zer daukagun esku artean eta arduraz jokatzeko dugu. Donostian, lan kontratua udan amaitzen zitzaien langile batzuei hurrengo urteko otsaila bitarte luzatu egin diete; bada-kite zein den panorama eta ez dira hutsetik hasiko lanean. Horrek lasaitzen gaitu pittin bat, baina hala ere, argi dago egoerari behar bezala aurre egingo dion pertsonalaren falta sumatzen dela.

Maila pertsonalean, nola daramazu osasun krisialdia?



Miren Ibañez Andoaingo erizaina. AIURRI

Nahiko ondo daramat guztia. Koronabirusaren lehen olatuan, heriotzez gain, gehien inpaktatu ninduen hiltzen ari ziren gaixoei ezarri zen distantzia izan zen. Familiarrak ezin hurbildu haiengana (batzuk hiltzen ari ziren arren), eta gutxiago besarkada edo musurik eman... Gaixoak gelako leihotatik kalera begira, eta bitartean, familiarak kalean animozko kartelekin... Eszena horrek tristura eragiten zidan batetik, eta emozioa bestetik.

Familiako kideren bat NBE-a (EPI) jantzita sar zitekeen gelara, baina hotsasuna nagusi izan zen denbora guztian. Alde horretatik, zerbait ikasi dugu guztiok ere, eta bigarren olatu honetan murgilduta, giza goxotasu-

nari begira zenbait neurri hartzen ari gara; besteak beste, teknologiaz baliatuz –eskuko telefonoak eta tabletak–, leuntzen saiatzen ari gara komunikazio pertsonalaren gabezia hori.

Gazteengan jartzen da maiz arreta, kutsatzeen arrazoiez mintzatzerakoan. Zer diozu?

Erruaren zatia badaukagu noski, baina guregan ez litzateke jarri behar ardura guzti-guztia. Gizarte krisiren bat dagoenean ematen du derrigorrezkoa dela errudunak topatzea haiengan fokalizatzeak amorrua; gazteok izaten gara jomuga askotan. Telebistetako irudiak ikusita biktimarik errazena gara, egia esanda. Bide batez, ahazten da agintariekin krisiarekin egiten ari diren kudeaketa kaskarra.

"EGOERARI BEHAR BEZALA AURRE EGINGO DION PERTSONALAREN FALTA SUMATZEN DA"

"AGINTARIEK EZ DUTE LEZIOA IKASI. OSASUNGINTZAN EZ DUTE BALIABIDE GEHIAGO JARRI"

Birusaren lehen olatutik ez dute ikasi lezioa, eta osasungintzan, adibidez, ez dituzte baliabide gehiago ezarri. Ekonomia ekoizpenari lehentasuna ematen segitzen dute eta, gizarte mailan jendea biltzeko oztupoak jartzeari ekin diote birusaren transmisioa ekidin nahi dela esanez. Hori bai, garraio publikoetan ez da gehiago inbertitzen, eta lanera doazen pertsonen gainezka ikusten dira; lantokietan ere jende-pilaketak gertatzea normalizat hartu da.

Zein mezu zabalduko zenuke?

Norbanako kontuaz ari garela, lehenbiziko eta behin; geure buruarekiko ardura eta zaintza hartu behar dugula, eta zorrotz bete behin eta berriro gogorazten diren neurriak.

Elkartasunarekin zerikusia duen jarrera eskatzen zaigu azken batean, geu ez kutsatzeaz gain ingurukoak kutsa ez ditzagun. Hartu beharko genuke kontzientzia ospitalak berriro gainezka egiten hasi direla, gaitza ez dela adinekoen kontua bakarrik, ospitaletan ingresatzen ari diren gaixoen batzuek besteko adina 50-60 urtera jaitsi dela...

Bestalde, zaintzaren aldeko mezua aipatzen dudanean, buruko osasuna ere eduki nahi nuke gogoan. Ikuspuntu psikologikotik ere saiatu beharko genuke pandemiak ahalik eta gutxien eragin gaitzan; horretarako komeni zaigu burua lantzea eta entretenitzea, irakurritik, sozializatuz (segurtasun neurriak kontuan hartuta edo eskura dauzkagun teknologiak erabilita)... Irudipena daukat birusaren izurrite hau noizbait gainditzen dugunean, eta ez lehenago, hasiko garela baloratzen zer nolako eragin psikologiko kaltegarriak utzi dituen bidean.

Adibidez, zer pentsatua ematen du haurrekin gertatzen ari dena. Aurreko astean Lekeitio eta Andoain herriak bakarrik omen ziren parkeak 24 orduz itxita zutenak. Ez dakit zein puntutaraino den egokia erabakia, ba ote duen oinarri zientifikorik, izan ere ikusi baita umeen artean ez dagoela hainbesteko kutsatze arriskurik; ikastetxeetako errealtateak ere horixe erakusten digu. Umeak bakean utzi beharko genituzke, sozializatu daitezkeen, jolas dezaten. Azkenean, teknologietan trebea baino abilezia sozialetan gabezia beterriko be-lanaldia hazten ari gara.

"Lan karga oso handia dugu ospitalean"

IRATI RIVAS DONOSTIA OSPITALEKO ZAINKETA INTENTSIBOETAKO UNITATEAN ERIZAINA la bost urte egin ditu Rivasek, erizain gisa. Birusak jotako gaixoei jardutea latza egiten ari zaiola aitortu du 26 urte andoaindarrak

Xabier Lasa ANDOAIN

Zainketa berezien unitatean lanez gainezka zabiltzate.

Ezinean gabiltza, bai. Egia esan, azken aldian lan pila daukagu, geroz eta gehiago; oheen faltan gaude, eta jada ospitaleko beste zenbait eremu Koronabirusarentzat egokitu behar izan dituzte.

Eguneroko martxa irauli egin zaizue.

Ez dauka zerikusirik martxoaren aurretik ohikoa zen gure lan dinamikarekin. Normalki, erizainon ardurapean egoten dira UZ Ira eramaten diren gaixoak. Iraganean, *box-etara* -bana-banako gelak- normaltasunez sartzen eta irteten ginen, geure zereginak egitera. Gaixoarekin tratatu gizatiarra edukitzen saiatzen ginen, non eta ez bazegoen sedatuta. Hizketan eta txantxetan jarduten genuen, egonaldi hartan geu baikara zibilizazioarekin eta bizitzarekin daukaten kontaktu bakarra.

Egun, ordea, dena hankaz gora jarri digun protokolo zorrotza bete behar dugu; EPI babes trajearekin gabiltza eta begiak besterik ez zaizkigu ikusten. Isolaturik eta hondatuta dauden gaixoei gertutasuna eskatzen digute, baina guk nekez erantzun diezaikegu. Oso-oso egoera latza bizi dugu horrexegatik. Bi



Irati Rivas erizaina andoaindarra da. AIURRI

edo hiru guantez estalita daukagun eskuekin lazten txikiren bat egiten ahalegintzen gara, baina ezin eskaini iraganeko tratua!

Lan-karga oso handia daukagu, eta trajearekin ere ezin dugu denbora askoan iraun, izerditan bukatzeaz gain zorabiatu ere egiten baikara batzuetan. Azkenean, pazienteak eta gu isolatuta gaude elkarrengandik, nahiz

eta Zainketa Intentsiboetako Unitatean espazio bera partekatatu.

Nola ari zara bizitzen osasun krisialdia, martxoan hasi zenetik?

Lehenengo konfinamenduan, positiboa zuten pazienteekin harremanetan jartzen hasi nintzen beldurra akabatzen egon nintzen. Orduan erabaki nuen familiarengandik aldentzea. Andoaingo bizitokitik irten, eta

Anoeta herrira joan nintzen bizitzera, bakardadean egoteko. Lehenengo asteetan, etxetik lanera eta lanetik etxera, horixe izan zen nire bizimodua. Negar batean egiten nituen joan etorriak, autoan. Musika alaia, festa-girokoa zen nire heldulekua, egoera emozionalari aurre egiteko.

Une honetan errealitatearekin bizitzera ohitu naiz, baina nekea sentitzen dut. Psikologikoki pixka bat hondatuta nago, eta, dena haizetara bidali, norabait joan eta deskonektatzeko premia sentitzen dut tarteka. Burutazioak burutazio, hor segitzen dut.

Ikusten al duzu tunel beltzaren amaiera?

Nahi nuke ikusi argia, baina axolagabekeria sumatzen dut zenbaiten aldetik; gehiegizko sozializazioa gertatzen ari da gizartean, eta ezkor naiz, ez gara itzuliko iruditzen zait. Inpresio hori edukitzeko, bizipen pertsonalez baliatzen naiz. Izan ere, ZIU ez ezik bigarren lanpostu batean aritzen naiz Osa-kidetzan azpikontrata batekin, guardiak egitea da nire ardura; larrialdiren bat aktibatzen denean behar izaten duten erizain horietako bat naiz, hain zuzen. Autoarekin herriz herri ibiltzea egokitzen zait, sendaketak-eta egiteko. Bada, noizean behin, harritu egiten naiz zer nolako jende pilaketak sortzen diren herrietako kaleetan; harridura, ez direlako neurriak hartzen, norbanakoengandik hasita. Ez daukagu barneratuta ekidin egin behar ditugula halako egoerak. Ez gara kontziente halako egoerarekin eta familiako bilerekin transmisioa ari garela sustatzen. Andoain zerrenda gorrian sartu zen lehengo astean, birusaren intzidentzia-tasa handia dela eta.

Ez nau harritzen, eta amorrua sentitzen dut. Gaitza hedatzen hasi zenean txalo joaldiak egiten ziren arratsaldeko 20:00etan, eta ez dakizu zenbat motibatzen ninduten! Negar egiten nuen emozioz. Orain, berriz, iruzur baten biktima bezala sentitzen naiz pixka bat. Txaloek irudikatzen zuten konpromisoa faltan sumatzen baitut.

Egiten diren gomendioekiko errespetu gehiago behar luke egon, txaloez gain. Neurriak zorrotzu beharko liratekeela uste dut.

Zer mezu helaraziko zenieke herrietarrei?

Buruz joka dezagun, mesedez. Izan zentzudun, norbera ez ezik ingurukoak ere ez kutsatzeko. Baliteke batek arin gaintitzea gaitza, baina ondokoak ez! Jendeak hiltzen segitzen du, eta ZIUtik bizirik igaro diren askok gero hilabeteak behar dituzte beren onera itzultzeko.

"Gaztea naiz eta ez naiz kutsatuko", "konfiantzako ezagun honekin eta harekin geratuta ez zait ezer gertatutako"... eta antzeko pentsamenduek ez dute balio. Egoera larri-larria bizi dugu, eta egin beharko genuke eskatzen zaigun sakrifizioa. Denok gaude gogo biziz jendearekin harremanak normaltzeko, baina egon gaitezke hilabete batzuk horrenbeste sozializatu gabe. Gabonetan ezin garela elkartu? Izango dugu aukera aurrerago. 2011ko maiatzean ospatu behar baditugu, ospa ditzagun orduan!

"TXALOEK IRUDIKATZEN ZUTEN KONPROMISOA FALTAN SUMATZEN DUT"



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- **Osasun Sailak zabaldutako datuak eguerdiro, eskualdera ekarrita.**
- **Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.**
- **Atal bereziak: BIDEO-PILULAK | DATUAK EGUNEZ EGUN**

w w w . a i u r r i . e u s





Izagirre eta Lainez udaletxeko pleno aretoan. AIURRI

Andoainen hartutako neurriak, datorren azaroaren 5a bitarte

Udalaren eskumeneko jarduerak eta ekitaldiak eten egin dira. Haur parkeak egun osoz ixtea erabaki du

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalak neurriak iragarri zituen datozen egunetarako, egoeraren arabera mola daitezkeenak: "Hartutako neurriak berrikusi eta eguneratuko dira, beharrezkoa izanez gero". Urriaren 30ean, esaterako, egoera aztertuko duela dio. Neurriak hala ere azaroaren 5a bitarte ezarri dituzte. Hauexek dira indarrean jarritako neurriak:

- Basteroren kultura-programazioa eta zinema emanaldiak bertan behera geratu dira. Basteroko erakusketa aretoa ere itxita dago.
- Musika eskolako bandaren eta abesbatzaren jardura eten egin dute.
- Ludoteka ez dago martxan.
- Gazte lokala itxi egin dute, eta online jarduerara egokituko dute eskaintza.
- Haur parkeak itxi dituzte.

- Liburutegia itxi egin dute, eta zerbitzua aurrez hitzordua eskatuta emango da.
- Kiroldegiko ikastaroak bertan behera geratu dira.
- Jubilatuen etxeak ixteko agindua eman dute.
- Udalak elkarrekin eta herri-tarrek deitutako edozein bilera bertan behera utzi dira.
- Asteroko azoka bitan banatzea erabaki dute: Makaldegian elikagaiak eta Goikoplazan elikagaiak ez direnak.
- Ikastetxeetako eta udalerriko sarreren desinfekzioa areagotu da.

Haur parkeak itxita

Udala Jaurilaritzaren gomendioak harago joan zen urriaren 23an, eta haur parkeak itxi egin zituen. Horrek guraso talde batek protesta eragin zuen. Udaletxe aurrean elkartu ziren, larunbat eguerdian.



Segurado PCR probak abiarazi zirenean, joan zen ostegunean. AIURRI

Urnietan hartutako erabakiak astebetez luzatu dira

Jardueren etenaldia iragarri dute, eta kultur jardueri dagokionez aurrerago antolatzeke asmoa azaldu dute

Erredakzioa URNIETA

Urnietan kutsatuen kopuru handia espero zen, bereziki PCR proba masiboak egin zituztelako. kutsatze tasa handia delako. Urriaren 19an Udalak neurri sorta iragarri zuen, Urkulluren eta LABiren gomendioei aurrea hartuz. Erabaki horren baitan Udalaren eskumeneko jardura ugari bertan behera utzi zituzten. Asteburuan hasierako neurri horiek gutxienez azaroaren 1a arte luzatuko zirela iragarri zuten. Nagusiki, murizketak ikastaroei eta kultur jardueri eragiten die.

Udalaren eskumeneko instalakuntzen itxiera

Jubilatu Egoitzan jarduerak eten dira, baina taberna, ile-apaindegi, masajista eta kallista zerbitzuak mantentzen dira. Liburutegiari dagokionez, liburuak alokatzeke zerbitzua ba-

karrik mantenduko da. Gainerakoan, Kiroldegia, Sarobe, Musika eskola, frontoia, gaztelekua eta ikasketa gela itxita daude. Kultur jardueri dagokionez, Udalak astelehenean honakoa adierazi zuen: "Bizi dugun egoeraren ondorioz bertan behera geratu diren ekintzaak hurrengo hilabeteetan berreskuratzeko saiakera egingo du Udalak".

Bertan, Lekaio eta Gazte Informazio Puntua zabalik

Ezinbesteko kasuetan soilik bertaratzeko gomendatzen zaie herritarrei, garrantzia berezia ez duten gaietarako modu telematikoa eta telefono bidezko forma lehenetsiz. Prebentzio-neurri zorrotzak bete behar dira gune horietara sartzeko.

Haur parkeak, bestalde, 20:30ak arte zabalik izango dira. Gauetz itxi egingo dituzte.



Osakidetzaren kanpaina. IREKIA

Prebentzio neurrietan sakontzeko deialdia

Erakunde guztietatik indar berezia egiten ari dira herritarrek segurtasun oharak bete ditzaten

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak gogora ekarri duenez, "herritarren gehiengoak gauzak ondo eginagatik multzo txiki batek bete beharreko neurriak betetzen ez baditu, guztion ongizatea baldintzatzen da, eta beraz, derrigorrezkoa da erantzukizunez jokatzeko".

- Erabili musukoa uneoro.
- Eskuak maiz garbitu
- 1,5 metroko distantziak errespetatu
- Saihestu pilaketak.
- Berrogeialdiak zorrotz egin.
- Sintomarik izanez gero, deitu osasun-zentrora:
- Urnieta 943 00 66 80.
- Andoain 943 00 66 70.

Andoaingo Udalak ez ditu haur parkeak irekiko

Jaurilaritzak parkeak irekitzeko aukera zabalik uzten du. Udalak, bere eskumena baliatuz, itxita mantendu ditu

Erredakzioa ANDOAIN

Urriaren 23an gorritz zeuden udalerrietan hainbat neurri hartu ziren. Eusko Jaurilaritzak haur parkeak gaueko 21:00ak arte irekita egoteko gomendioa luzatu zuen, eta herri gehienetan

gomendio horri eutsi zioten. Andoaingo Udalak bere aldetik parkeak ixtea erabaki zuen, sozializatzeko gune zirela eta pilaketak sor zitezkeela argudiatuta.

Urriaren 27an indarrean sartu zen Alarma-egoera, eta arau-

di berria ezarri zuen orduan Eusko Jaurilaritzak. Haur parkeei dagokionez, haxe dio araudiaren azken aurreko puntuak: "Haur-parkeak, kirol-eremuak, skate pistak edo aire zabaleko erabilera publikoko antzeko espazioak jendearentzat irekita egon ahal izango dira, baldin eta horietan gehieneko edukiera errespetatzen bada: barrutiarren azaleraren espazio konputagarriko 4 metro koadro bakoitzeko pertsona 1. Udalei dagokie espazioa antolatzea, baita gar-

bitasun- eta higiene-baldintzak bermatzea ere".

"Andoaingo kasuan Udalak ez irekitzea erabaki du"

Aiurri astekariak Andoaingo Udalarri egin dio kontsulta, eta gai honi buruz udal bakoitzak neurri propioak ezartzeko bere eskumena daukala berretsi du: "Eusko Jaurilaritzaren dekretu berria zuzenean eta bere osotasunean aplikatu behar da Andoainen. Herriari dagokionez, aurreko egoerarekin alderatuta,

ez da aldaketa nabarmenik finkatzen, soilik ostalaritzaren itxiera ordua (21.00etatik 23.00era). Gainerako udal neurri guztiak indarrean daude, eremu gorrian gauden bitartean. Egoera sanitarioaren bilakaera aztertuz joango da, eta ostiralean aipatu bezala egoera epidemiologiko bakoitzera egokitzen".

Haur parkeei buruzko egoera zehatzaz galdetuta, honakoa izan zen erantzuna: "Andoaingo kasuan Udalak ez irekitzea erabaki du".

Urrian zehar PCR bidezko kasu positiboen kopurua biderkatu egin da

URRIA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27
ANDOAIN	3	1	2	1	3	2	2	1	0	8	3	1	11	11	6	11	10	5	1	5	10	8	5	10	6	3	11
URNIETA	1	3	4	5	1	1	1	2	4	1	1	1	1	4	8	5	13	13	14	12	15	18	21	16	11	3	13

1.567 PCR proba Urnietan

Osakidetzak 13 eta 40 urte arteko urnietarrak deitu zituen PCR proba egitera. Urnietako pilotalekuan, hiru egunetan zehar, 1.567 proba egin zituzten denera. Ostegunean 481, ostiralean 896 eta larunbatean 190



Ostegun arratsaldean PCR probatan ateratako irudia. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Ordu gutxiko epean, Osakidetza-zen deia jaso eta herri-rikide kopuru handi bati proba egiteko azpiegitura osoa prestatu zuen Urnietako Udalak. Horrexegatik, udal-langileek eta, bereziki, Osakidetzako langileek egun horietan egindako lana eskertu nahi izan zuten. Ez da, ez, kargua hartu berri duen alkate batentzat hasierarik samurrena izan. Baina Jorge Seguradok agerpen handia izan zuen hedabideetan, egun ezberdinetan, proba masiboen berri emateko. Alkateak eskertza adierazi zien herritarrei ere, emandago erantzun onagatik. Garrantzitsua baitzen herri-tarrak proba egitera joatea Urnietako egoeraren ahalik eta argazkirik errealean lortu ahal izateko, eta horren baitan, era-

baki egokiak hartzeko. "Derri-gorrezkoa da erantzukizunez jokatzeko, une honetan guztion osasunak izan behar baitu lehen-tasun nagusia", adierazi zuen

alkateak. Halaber, Osasun Sailak zehaztutako prebentzio-neurriak zorrotz betetzeko beharra berretsi zuen, Udalak zein Eusko Jaurlaritzak ezarritako neurriak.

Gorritz Beterri-Buruntza osoan

Gipuzkoako datuak goruntz doaz etengabe, eta azken asteetan ezagun egin den "semaforo gorria" eskualde osoan piztu da. Astigarraga izan zen lehen herrigunea, Urnieta bigarrena. Eta atzetik iritsi ziren Hernani eta Andoain. Astelehen honetan jakin da Lasarte-Oria eta Usurbil ere gorritz irudikatu dituela Osakidetzak.

Hauexek aurreko asteburuko datuak:

- Andoain: 21 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 669,12.
- Astigarraga: 17 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 1100,32.
- Hernani: 62 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 944,39.
- Lasarte-Oria: 17 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 531,21.
- Urnieta: 48 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 2294,02.
- Usurbil: 10 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 553,97.

Joerak

URNIETA:

22 kasu abuztuan.

43 kasu irailean.

192 kasu urriak 1-27.

ANDOAIN:

51 kasu abuztuan.

74 kasu irailean.

140 kasu urriak 1-27.

Egoitza-sarea

GIPUZKOA:

65 zentro eta 5.425 plaza daude adinekoei arreta emateko. Azken astean soilik, DYAK 3.825 PCR proba egin ditu, 1.730 egoiliarrei eta 2.095 langileei.

PCR proba egindakoak



Uxue Iguaran Aldanondo. AIURRI

Uxue Iguaran (17 urte):


"Esaten ari diren bezala, Urnietako egoera hain txarra delarik, hau dena modu azkar eta nahiko zuzena iruditzen zait ikusteko benetan nola dagoen egoera. Eta neu ere nire buruarekin eta kontzientziarekin lasai geratzeko, arratsaldean PCRa egingo dut".



Xuban Ezeiza Zapiain. AIURRI

Xuban Ezeiza (24 urte):

"Ondo iruditzen zait herri mailan horrelako baheketa bat egitea. Ez zait kasualitatea iruditzen kasu honetan ere fokua gazteok izatea eta pertsonalki ez dut uste arazoa gazteona soilik denik. Gazte oro proba egitera animatuko nuke, argi izanik herritar guztiok dugula ardura".



Aritz Arano Irizar. AIURRI

Aritz Arano (34 urte):

"Ikusita egon den larritasuna eta azken asteetan egon den positibo igoera, eta neroni ere lasai egoteko... niri ondo iruditu zait. Horregatik lana utzi eta etorri egin naiz testa egitera".



Javier Fraisoli Arevalo. AIURRI

Javier Fraisoli (29 urte):

"Azken asteetan positibo ugari ematen ari dira eta niri ondo iruditzen zait. Azterketa handia egin behar da, Urnietako azken datuak nahiko inpaktanteak direlako".


Euskaraldiaren aurkezpena Basteron

Lehen edizioan 1786 *ahobizi* eta 573 *belarriprest* murgildu ziren Andoaingo Euskaraldian. Aurtengo egoera berezi eta zailean, poztekoa litzateke kopuru horietara iristea. Izan *ahobizi*, izan *belarriprest*, aurtengoan *arigunea* izeneko guneak izango dituzte aukeran

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

“2018koa gogoan hartu eta ari-keta soziala berriz errepikatze-ko garaira iritsi gara”; Ixiar Oreja eta Ainhoa Aiertza aurkezleek Euskaraldian murgiltzeko deialdia egin zuten. 2020ko edizioaren aurkezpen ekitaldian izan zen, Basteroko auditorioan egin zutena. Ahobizi eta belarriprest definizioak gogora ekarri eta bakoitzaren rolaz aritu ziren hizketan. Horrek bidea eman zien aurtengo berrikuntza aurkeztera, Ariguneak izeneko. Aurten euskaraz taldean aritzea sustatu nahi da. Pandemia betean, ez da asmo hori bete-betean burutuko, baina ez zaio ahalegina egiteari utzi behar. Izan ere, Andoainen bakarrik 80 arigune izango direla iragarri zuten. Denda, ostalari, enpresa, elkar-te... ekimen ugari batu dira aurtengo deialdira.

Basterokoa kulturaz jantzitako ekitaldia izan zen. Maizorri taldeko txalapartariak, Soinuak



Ixiar Oreja eta Ainhoa Aiertza aurkezleak, Basteron. AIURRI

musika eskolako gitarjoleak eta bertsolariak igo ziren taulagainera. Tarteka, aurreko edizioako bideoa eta aurtengo edizioa sustatzeko beste bat eskaini zituzten. “Herritarren txanda da orain. Izan zoriontsu eta bizi euskaraz”

esanez agur esan zuten Ixiar Orejak eta Ainhoa Aiertzak. “Guk euskaraz” abestiarekin amaiera eman zitzaion ekitaldiari. Pandemia betean, egunotan Euskaraldian izena eman nahi duenak internet bidez egin beharko du.

Euskaraldiak bilduko gaitu



Jon Eskudero. AIURRI

Jon Eskudero

Hola buenas tardes a todos, hoy tenemos un gran día, por que ya llevo la presentacion de nuestro Euskaraldia. Ze arraroa eta arrotza erdaraz bertsolaria ba nire arrotz sentitu ohi naiz ta esango det egia: erdaraz bizi baldin bazaigu Andoaingo herri erdia.

Zer diozue 'pixka bat erotzen ari da Jon Eskudero', baina jendea zenbat dabilen erdaraz jo eta fuego. Euskaraz ari behar genduke dendari eta bezero, kontuan izan herri euskalduna izango dugula gero, hitz egin eta whatsapeatu euskaraz egin ezkeru.



Unai Ormaetxea. AIURRI

Unai Ormaetxea

Zapaldutako hizkuntza baten oinordekoak gu gera, ideologi kontua baita azken finean euskera. Ta ez naiz ari alderdikeriz politiketan norbera, zeren aldean egon baitago alde batetik bestera. Ta alde hori handia degu jakitetik egitera.

Euskaraldiak bilduko gaitu inon biltzekorik bada maskarilla ta Covidarena ez dugu izango traba. Belarriak fin mingaina zorrotz irtengo gara plazara, denok batera euskeragatik egingo dugu algar: Behin ta betikoz harrotu dadin gure kaletan euskara.

Eman izena Euskaraldian!

izenematea.euskaraldia.eus



Izan ditzakezun **GALDEREI,** **ERANTZUNA!**

Izena ematen badut, ekimen honek denbora asko eskatuko al dit?

Ez. Hamaika egunetan egin behar duzun bakarra, zure ohiko harremanetan hizkuntza praktika aldatzea izango da, Ahobizi edo Belarriprest izanez.

Euskaraldian eman dut izena. Eremu guztietan Ahobizi edo Belarriprest izan behar al dut?

Ahobizi zein Belarriprest izan, aukeratu duzun rola egunero eta edozein lekutan praktikan jartzea proposatzen dizugu, eguneko 24 orduetan. Azken finean, ulertzen duten guztiekin euskaraz aritzea edo eta dakitenei egiteko gonbidapena luzatzea dira gure nahiak. Eta horretarako ez dago mugarik, ezta ekimena bukatzean ere!

Kalean soilik jantzi behar al dut txapa?

24 orduko ariketa denez, etxean, kalean edota lanean txapa soinean eramatea gomendatzen dizugu. Zeuk ikusi beharko duzu zein egoeratan eraman ahal duzun. Hala ere, ariketa ongi burutzeko, Ahobizi edo Belarriprest zara eguneko 24 orduetan. Errazagoa izan daitekela ohitura ezezagun batekin aldatzea? Noski, baina garrantzitsuagoa da ezagunekin egitea aldaketa hori: bikotea, gurasoak, kuadrillako lagunak, lankideak...

Non, nola eta noiz jasoko dut txapa?

Ekimena baino egun batzuk lehenago jasoko duzu txapa, eta, horretarako, aldeztu aurretik izena eman beharko duzu. Behin izena emanda, zure herrian jasoko duzu txapa, Euskaraldia hasi baino bi aste lehenago. Kontakturako jarri dituzun datuen bidez esango zaizu non eta noiz jaso, beraz, egin kasu posta elektronikoari edo mugikorriari!

Euskaraldia hasi da eta ez dut izenik eman. Oraindik izena eman dezaket?

Berandu zabilta, baina hobe berandu inoiz ez baino. Euskaraldiak irauten duen hamabost egunetan zehar izena emateko aukera izango duzu.



Marijose Izagirre, Zerbitzu Saileko zinegotzia Goiburun. ANDOINGOUDALA

Edukiontzi gune integrala Goiburu auzoan

Zerbitzuen Udal sailak landa eremura eramane du hirigunean eskaintzen duen zerbitzu berdina

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalak martxan ipini du Goiburu auzoan hondakinen bilketarako edukiontzi puntu berria. Frontoiaren atzeko aldean kokatuta, hondakinen bereizketa integrala egitea ahalbidetuko du (organikoa, errefusa, beira, papera, plastikoa). Izagirre Zerbitzu saileko zinegotziaren iritziz, "Andoaingo Udaletik hirigunean ematen diren zerbitzu aukerak auzune ezberdinetan berdindu ahal izateko ahalegina egiten ari dira".

Bi helburu lortu nahi dituzte, Goiburuko berrikuntzarekin: "alde batetik, auzo ezberdinen eta hirigunearen artean egon daitezkeen desorekak ekiditea, guztiei ahalik eta kalitatezko zerbitzurik onena eskaini ahal izateko, eta bestalde, hondakinen bereizketan hobetzea, birziklatze tasa ahalik eta altuena lortzeko, %70eko langa gaitzitzeko".

Txartelaren erabilera

Organikoa eta errefusaren ontziak ireki ahal izateko ezinbestekoa izango da txartela. Horregatik, Goiburu auzoko bizilagunek Ambrosia Olabide zentrora gerturatu beharko dute txartela eskuratu ahal izateko. Hondakinen bilketa sisteman alta eman eta txartela lortzeko ordutegia goizeko 09:00etatik 13:00etara bitartekoa da.

Dimentsio handiko hondakinen bilketa

Astearte goizero egiten da, eta horregatik astelehen gauetan atera daitezke bolumen handiko hondakinak edukiontzien bilketa puntura. Horrez gain, Garbi-gunera zuzenean eramateko aukera dago. Zerbitzua doakoa da.

Ordutegia: astelehenetik ostiralerara: 09:00-12:00 / 16:00-19:30. Larunbata: 09:00-13:30.

"Elkarlana beharrezkoa izango da gauzak ondo egin nahi badira"

Andoni Alvarez Lete buru den EH Bildu alderdiak oharra argitaratu du, azken egunetako gertaeren harira

Erredakzioa ANDOAIN

Pandemiari buruz, "egoera gorra da eta horrela izango da datozen hilabeteetan. EHBildu laguntzeko prest dago. Horretarako udal gobernuak alderdiek laguntza onartu behar dute. Benetako elkarlan dinamika bat martxan jarri eta udal gobernu, talde politiko eta sektore ezberdinetako ordezkariekin batera plangintza eraginkor bat egin behar da. Elkarlanean, hori baita aurrera egiteko egongo den

modurik onena". Egunetik egunera egoera okertzen ari dela eta, "lehengo astean onartu ziren tasak eta zergak berrikusi eta hobarien plana berreskuratu behar da. Ezin zaie ostalariei %100eko zergak kobratu, lanean hainbeste murrizketa dituen sektore bati. Bidegabekia da eta etorkizunari begira kaltegarria".

Horren harira, "sorpasaz eta tristuraz" jaso dute prentsa bidez jaso duten albisteak. Udalak diagnostikoa iragarri du, EH Bilduk

lehendik ere eskatu zuen bezala: "maiatzean ezezkia erantzun zuen Udal gobernuak, eta joan zen hilean interesgarria da, ikusiko dugu izan zen erantzuna. Asteburu honetan, prentsa bidez jakin dugu jadanik enpresa bat kontratatuta dutela lan hau burutzeko eta metodologia ere zehaztu dutela. Gai hau batzordetik pasa gabe, alderdien eta eragileen ekarpenik jaso gabe, publiko egin dute berriz ere. Diagnostikoak gure ustez zabalagoa izan behar du, autonomoak edo krisia pairatzen ari diren sektoreak barnebildu behar ditu".

Haur parkeen itxierari dagokionez, galdera luzatu du EH Bilduk: "Zein irizpide tekniko erabili dute neurri hori martxan jartzeko?"



UDALA

Ordenantza fiskalak, egoerari egokituta

2021erako tasa eta zerga guztiak izozteko proposamena aho batez berretsi zen, urrian egin zen ez ohiko Udal batzaraldian. Maider Lainez alkateak adierazi zuenez, egungo egoeran "ez dugu igoerarik egin nahi izan herritarrei presio fiskala murrizteko, nahiz eta horrek ahalegin berezia eskatuko dion Udalarri, diru gutxiago bilduko delako eta, ondorioz,

baliabide gutxiago izango direlako, baina zerbitzu publikoei eutsi nahi diegu eta pertsona ahulenen beharrei erantzun, inor atzean utzi gabe". Lainez alkateak erantsi zuenez, "eginiko proposamenak COVID19-aren aurkako tresna izan nahi du, gehien kalteturiko sektoreei malgutasunaren eta hobarien bitartez laguntzeko".



andoainDARRA
euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema.
Andoain urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da.
Urietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ERROITZ** **ALJATUAK:** **TOKIKOM**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA **Urietan**

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:

Gipuzkoako Foru Aldundia **Babesleak:**

Bikain **Aiurriko harpidedunak**
ezinbestekoak dira.



Urnietako Udalaren ez ohiko batzaraldia, joan zen urriaren 20an. Jorge Seguradoren lehena izan zen, alkate modura. AIURRI

Jorge Seguradoren lehen plenoa, alkate lanetan

Alkate berriarentzat urriaren 20koa izan zen alkate modura zuzendu zuen lehen plenoa. Ez ohikoa izan zen, nagusiki ordenantza fiskal berriei onespina emateko deitu zutena. Mamia izan zuen, eta alderdien arteko talka bistaratu zen

Jon Ander Ubeda URNIETA

Ez du, ez, berehalakoan ahaztuko kargu berrian izan duen hasiera: Urnieta alarma-egoeran, kutsatuen intzidentzia metatuaren adierazlea oso ginetik dagoela, eta urnietar ugari PCR probak egitera deituta zeudela. Tokiko eta nazio mailako hedabideen aurrean atera behar izan zuen, eta bere alde esan behar da oso txukun aritu zela euskaraz zein gaztelaniaz. Seguradoren ondoan lotsa pixka bat pasa beharko luke Carlos Barriuso Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuko zuzendariak. Urnietara hurbildu zen Osakidetza izenean adierazpenak egitera, baina gaztelania hutsean aritu zen. Bertaratu ziren kazetariak –bat baino gehiago telebistakoak– euskaraz adierazpenak egiteko eskaera egin ziotenean mutu geratu zen. Eta PCR probak egiten ari zen erizain bat ekarriarazi zuten, euskarazko adierazpenak egiteko. Seguradoren alkate berriarengandik

ikasi beharko luke Barriuso jaunak.

Urnietako osoa aztoratu zuten egunen atarian, udaletxearen osoko bilkura deitu zuten. Eta Seguradoren alkate modura debuta egin zuen. Gobernu taldearen eta oposizioaren arteko talkan jokoa banatzen aritu zela esan daiteke, oraindik orain Mikel Pagolak hartu zuelako EAJ-PNVren argudioak defendatzeko ardura. Pagola izango da bozeramailea, eta itxura guztien arabera lanik ez zaio faltako. Ainara de Miguel EH Bilduko ordezkariak eta Herme Gonzalez PSE-EEko bozeramaileak zorrotz aritu baitziren, gobernuari kontrol lana egiten.

Tasak eta zergak

IPC edo KPI negatiboan abuztuan egonik, tasak eta zergak bere horretan mantentzea ezkutuko igoera baten parekoa zela ondorioztatzen zuen Herme Gonzalez sozialistak. Foru Funtza ere ez dela %20koa izango, %14,5koa

baizik gaineratu zuen. Horrek Aldunditik uste zena baino diru gehiago etorriko zela ondorioztatu zuen. Horregatik eta beste arrazoi batzuzengatik abstentzioaren alde egin zuten, “abstentzio kritikoa” adierazi zuenez. KPIa hipzide izan zuen ere EH Bilduk. Ainara de Miguelek abstentzioaren alde egin zuen, “ez delako eztabaidagunerik sustatu, bideratu edo sortu”.

Mikel Pagolak adierazi zuenez, Gobernu taldearen proposamena “aurreko urtekoaren oso antzekoa da. Aurten oso aldaketa gutxi dago. 2020an Udalak hartu behar izan dituen neurriak eta gero, tasa batzuk ez kobratzea proposatu izan da. Uraren eta zaborraren kasuan, 2021era begira, horiek kobratzeko proposamena egiten da. 2020ko preziora itzulita”.

Udala ordezkatzeko karguen birbanaketa

Erakunde ezberdinetan Urnietako Udala ordezkatzeko kideei

dagokionez, ordezkari guztia jeltzaleena da. Herme Gonzalezek oposizioari garrantzia eman behar zaiola adierazi zuen, eta faltan bota zuen EH Bilduko ordezkari ez izendatzea. EH Bilduk bere aldetik, “dezepzio handia jaso dugu. Aniztasunerako prestutasun eza ikusten dugu”. EAJ-PNVk erabakia demokratikoa dela defendatu zuen, eta gainerako herrietan ematen den ildoan izan dela iradoki zuen.

Horri tiraka PSE-EEko Herme Gonzalezek jarraitu zuen, “hautakundeek gehiengo osoa eman dizue. Ez dago zalantzarik. Gipuzkoa mailan eta Euskadin EAJ-PSE akordioa dago, eta Urnieta salbuespena da. Ez dugu pribilegiarik nahi, baina gutxieneko kontsiderazioa bai. Urnietakoa gure alderdien arteko akordioak errespetatzeko adibide onena ez da”.

Erakundeetako ordezkariarekin egin bezala, karguen birbanaketa egin da. Eta horrekin batera liberazio politikoetan aldaketa egon da. Gobernu taldeak jakinarazpena eman zuen, ez zen bozkatu behar. Horren arabera, Jorge Segurado lanaldi osoko alkatea da. Harekin batera EAJ-PNVko Luke Goñi, Agurtzane Merkader eta David Rosco lanaldi erdian arituko dira lanean. Oposizioaren aldetik, agintaldiaren hasieratik Ainara de Miguel EH Bilduko bozeramaileak lanaldi erdiko dedikazioa du. Eta PSE-EE alderdia inolako dedikaziorik gabe dago. Agintaldiaren hasieran bezala daude sozialistak. Eta gogoan izan behar da dedikaziotik kanpo egotea gogor salatu zutela sozialistek. EH Bilduk, agintaldiaren hasieran eta orain ere, PSE-EE alderdiarentzat dedikazio partziala eskatu izan du.

“Zuen iritziz alderdi sozialistak ez badu liberazio partzial bat merezi bere lana modu positiboan egin dezan, guk Udala gobernuaren funtzionamendua ikusi eta gero eta lan karga handia dagoela ikusita, arrazoia badugula uste dugu. Proposamenaren aurka gaude”. Tratuan, konfiantza eta oposizio alderdien parte hartzeko aukerak gabeziak zeudela erantsi zuen PSE-EEko ordezkariak.

EH Bilduk agintaldiaren hasierako argudioei eutsi zien: “Duela urte pasatxo liberazioak proposatu zirenean, legean oinarritu ziren proposamen horiek. Bilduk uste du ordezkariak dagoen alderdi orok liberazioa izan behar duela oposizio duina egiteko. Zuen lan jardunean blokeoa nabarmena da. Komisioak puntu ugariarekin egiten dira, ordu aldaketak, zuzenketak... Herriak bozkatu duen alderdi bat liberaziorik gabe uztea ez dugu aurrikusten”.

Kudekaeta planari lotutako proposamena izan zela argudiatu zuen Pagolak: “Alkate aldaketarekin, jendeak ardura eta erantzukizun berriak hartu behar ditu. Zinegotzi batzuei ardura gehiago eskatuko zaie orain, eta gure proposamena horren isla da”. Agintaldiaren hasieran azaldutako zentzu beretik doala defendatu zuen alkate ohiak.

49 minutuko plenoa ikusgai dago Urnieta.eus webgunean. Bozeramaileen artean giroa ez dagoela antzematen da.

PLENOETAN PAGOLARI EZ ZAI OLANIK FALTAKO. ZORROTZ ARITU ZIREN DE MIGUEL ETA GONZALEZ



Urnietako
udala

"Partidak jokatzeko gogo biziz gaude"

ALBERT FUENTES SAMANIEGO URNIETA KE FUTBOL TALDEKO KOORDINATZAILEA
FUTBOLA Koordinatzailea pozik dago udan entrenatzaileekin eta taldera etorri diren jokalar berriekin sortu den dinamikarekin

Mikel Arberas URNIETA

Federatu mailako futbola noraezean ibili da, pandemia iritsi zenetik. Aurreko liga bapatean bukatu zen, eta denboraldi honetan Urnietako gizonezkoen Gorengo mailako taldeak soilik egin du debuta. Albert Fuentes baikor agertu da eta datozen hilabeteetan egoera hobetzearekin batera txapelketarekin jarraitzea espero du.

Ekin diozue lehiaketei, gogotsu al zaudete?

Aurreko astean hasi behar zuten Emakumezkoen Ohorezko eta Gizonezkoen Gorengo mailak jokatzeko, baina azken hauek hasi ziren soilik. Nesken taldeko bi jokalarik kontaktu zuzena eduki zuten positibo batekin, beraz, ezin izan zuten partida jokatu. Federazioarekin hitz egin eta norgehiagoka atzeratu guden. Gizonezkoek baikor ekin zioten txapelketari eta garaipena eskuratu zuten. Aurreko urtetik hona lehen taldeak aldaketa asko eduki ditu; entrenatzaile berria du eta taldea gaztetu egin da, jokalar gazte gehiago etorri baitira.

Emakumezkoak hasteko gogotsu daude, izan ere, iaz lehen aldia zen Ohorezko mailan aritzen zirela, gainera, ez zuten denboraldia amaitzeko aukera



"Udan lan asko egin genuen; zuzendaritzaren, koordinatzaileen eta entrenatzaileen aldetik lan handia egin zen entrenamenduetan eta partidatan segurtasuna bermatuko zuen protokoloa prestatzeko eta taldera jende berria ekartzeko". UKE

eduki. Hasiera batean mailara egokitzea kosta egin zitzaiera, baina erritmoa hartu ziotenean, txapelketa eten egin zen.

Zer moduz hasi duzue denboraldia? Gogotsu hasi dute denboraldia, entrenatzaileek eta jokalariek. Aurrekoa oso ezustean amaitu zen eta hilabeteak egon ginen ezer jakin gabe. Bestalde, udan lan asko egin genuen; zuzenda-

ritzaren, koordinatzaileen eta entrenatzaileen aldetik lan handia egin zen entrenamenduetan eta partidatan segurtasuna bermatuko zuen protokoloa prestatzeko eta taldera jende berria ekartzeko.

Lan talde polita sortu dugu, entrenatzaileekin eta kanpotik etorri diren jokalar guztiekin. Jubenil mailan bigarren talde

bat sortu da, izan ere, jokalar asko gerturatu direlako. Guztiak jokatzeko gogo biziz daude.

Liga bukatzeko aukerarik egongo ez balitz, zer gertatuko litzateke? Ez dakigu zer jazoko den. Hala ere, Federazioak aukera hori aurreikusiko zuela pentsatzen dut eta, beraz, liga laburragoa egingo dute. Horretarako, lehiaketako taldeak txikiagotu dituzte. Baina erabaki asko ez direla hartu uste dut, laister hauteskundeak egingo baitira federazioan.

Kirol arloko neurri zehatzak hartu al dituzue segurtasuna bermatzeko?

Lehenik eta behin, zenbait neurri jasotzen zituen protokolo bat egin genuen. Urnietako Udalak ezarritako protokoloa irakurri ostean, neurri berriak gehitu genituen, oso beharrezkoak zirela iruditu zitzaigulako. Alda-gelak ez daude eskuragarri, kirol instalakuntzatan sartzen denari temperatura hartu behar zaio eta soilik entrenatzera datozenak sartu daitezke. Talde bakoitzak bere materiala du eta jokalar bakoitzari ur botila bat eman genion, ezin delako ezer partekatu. Horrez gain, materiala garbitzeko produktuak erabiltzen ditugu, zeharkako edozein kutsatze arriskua ekiditeko.

Bideragarria ikusten duzue partidak ikusleekin jokatzeko?

Aurreko asteetan aukera hori baloratzen aritu ginen, baina kirol instalakuntzak itxi direla eta, apur bat atzeratu dugu erabaki hori. Urnietan errazagoa dela zelaiaren goiko aldetik sartzea. Hala ere, egoerara nola moldatu pentsatzen ari gara, ikusleek futbolaz goatzeko aukera eduki dezaten. Zaila da horrelako galderak erantzutea,

Urnietako kiroldegia kudeatzen duen enpresaren menpe baikauda, hau da, ez dira geure instalakuntzak. Dena dela, pentsatzen dut, datozen hilabeteetan egoera hobetuz gero, jendea sartzeko aukera egonen dela.

Taldean koronabirus kasurik eduki duzue?

Entrenatzen eta jokatzeko hasi ginenean kasu bat eduki genuen. Jokalar batek koronabirusaren zantzuak zituen eta PCR testa egin zioten. Gauzak horrela, talde guztia konfinatu behar izan zen. Etxean zeudenei gomendio batzuk bidali genizkien eta Osakidetzarekin hitz egin genuen; egoera oso ondo kudeatu genuela esan ziguten. Talde osoak egin zuen PCRa eta guztiek negatibo eman zuten. Dirudienez, geure protokoloak ondo funtzionatzen du.

Bestalde, orain arte ez dugu beste kasurik eduki. Hori bai, ikastolan pertsona bat konfinatuta eduki dugu, gelakide batek positibo eman zuelako, besterik ez.

Nola ikusten duzu kirol ez-profesionala egoera honetan?

Egoera zaila da. Azken finean profesionalak euren osotasunean kirol arloan aritzen dira eta, beraz, guztia kontrolpean edukitzeko langileak dituzte. Hortaz, pentsatu, kirola geure zaletasuna izanik, egunero lanera edo eskolara joan eta pertsona gehiagorekin egoten garela kontaktuan. Ezin dugu kontrolatu birusa non dagoen.

"TALDE POLITA OSATU DUGU KANPOTIK ETORRI DIREN JOKALARIEKIN ETA ENTRENATZAILEKIN"

Akordioa lortu da profesional mailako pilotarien auzian

PILOTA Azken asteetan bolo-bolo egon den gaia izan da pilotari profesionalen eta Baikoren arteko desadostasuna

Erredakzioa ANDOAIN

Hilabete eta erdiz greban egon ostean, adostasun batera iritsi dira. Astearte arratsaldean akordioa sinatu zuten eta greban zeuden 15 pilotariak frontoira bueltatuko dira.

Lortutako akordioak zortzi puntu nagusi ditu:

1. Josu Eskiroz, Jon Mariezkurrena, Unai Laso eta Victor Esteban pilotariak berriro ere Baiko enpresara itzuliko dira.

2. Urteko 25.000 euroko gutxieneko soldata edukiko dute.
3. Estelarrak jokatzekoagatik dirusarrera gehigarria izango dute.
4. Entrenamenduengatik edo partidengatik kanpora joanez gero dieta ordainduko zaie.
5. Pilotarien eta enpresaren arteko barne araudia bien artean adostuko da.
6. Entrenamenduetako araudia- ren aldaketa. Pilotariak bere kabuz edo enpresarekin entrenatzea erabakiko du.

7. Soldata baxuena dutenek esklusibotasun laboralaren araudia aldatu ahal izango dute, tekniko baten gainbegiradapean.
8. Enpresek engaiamendua erakutsi dute, botileroen parte hartzeari, urteko egutegiaz informatzeari edota egongo liratekeen edozein aldaketei buruz informatzeko.

Pilotarien greba amaituta, frontoira itzuliko dira eta arreta kirol jarduerak izatea espero da.

Hilabete eta erdiz aritu dira greban, baina, azkenean, pilotazaleek norgehiagokak bere osotasunean ikusteko aukera edukiko dute.

Inguruan greban parte hartu duen Jon Erasun zizurkildarra aurki daiteke, zeinak, hasieratik gainontzeko 14 pilotariarekin bat egin zuen. Horrez gain, Gazteleku pilota eskolan ibilbide osoa egin duen Iker Elizegi asteasurra debuta egin berri du. Lehen partida jokatu eta egun gutxira iritsi da akordioa.

Ziurgabetasunaren denboraldia

ESKUBALOIA Leizaran eskubaloiak neurri zorrotzak ezarri zituen entrenamenduak eta partidak modu seguruan egin ahal izateko. Baina, azken egunotako egoera dela medio, partidak bertan behera geratu dira noiz berrekingo dioten jakin gabe



Eguberrietako txapelketa, aurreko neguan Allurralden jokatu zena. LEIZARAN

Mikel Arberas ANDOAIN

Leizaran Eskubaloia taldekoek hilabeteak daramatzate lanean txapelketa segurtasun eta berme guztiarekin hasi ahal izateko. Informazioa jasotzen eta bilerak egiten aritu dira, modu batera edo bestera eskubaloia atea irekitzeko; garrantzitsua iruditzen zaielako kirol-jarduerak martxan jartzea, garapen fisiko eta emozionalarentzat ezinbestekoa baita. "Normaltasun berri horretara egokitzen jakin behar dugu, normaltasun handienarekin bizi ahal izateko", gehitu du taldeak.

Kirol elkarteko ordezkariak nabarmendu nahi dute, jokalarien, senideen eta inguruko osasunak eta segurtasunak dutela lehentasuna. Adierazitakoa bermatzeko, eskubaloia taldeak protokolo zorrotz bat sortu du,

entrenamenduetarako eta partidatarako. Protokolo horrek Andoaingo Udalak zehaztutakoarekin bat egiten du, eta derigorrez bete beharko da: "Entrenamenduetan eta partidatan segurtasuna bermatu nahi dugu, horregatik hartu dira horrenbeste neurri".

Esanak esan, Leizaran Eskubaloia Kirol Klubak honakoa adierazi du: "Entrenamenduen hasiera mailakatua egiten ari gara. Jubenilen eta seniorren taldeak irailaren 7an hasi ziren, kadeteak irailaren 21ean, eta infantilak urriaren 1ean. Berriz ere azpimarratu nahi dugu, lehentasuna jokalarien, familien eta haien inguruko segurtasuna bermatzea dela". Lagunarteko partidak jokatzeko aukera eduki dute, zeinetan, ezarritako protokolo eta neurri

guzti hauek erabili dituzten. Ez da erraza egoera honetan partidak eta entrenamenduak zehaztea. Izan ere, egunez egun aldatzen doan errealitatea da. Esaterako, eskubaloia taldeek asteburuan hasi behar zuen txapelketa, baina ez da partidarik jokatu azken egunetan bizi izan den egoera dela eta. Guztia bertan behera geratu da eta federazioak ez du zehaztu noiz berrekingo dioten txapelketari. Leizaraneskubaloia.com gunean eskegi dituzte 2020-21 denboraldiko denboraldi-ordutegiak, eskualdeko kontingentzia-plana, Andoaingo Udalararen kirol-instalazioak erabiltzeko protokoloa eta Leizaran Eskubaloia Kirol Klubaren segurtasun-protokoloa.

LEIZARAN ESKUBALOIA BAZKIDETZA

Leizaran Eskubaloia Kirol Klubeko bazkide egiteko edo bazkidetza berritzeko ezinbestekoa izango da taldearekin harremanetan jartzea, info@leizaraneskubaloia.com posta elektronikoren bitartez.

"LEHENTASUNA JOKALARIEN ETA HAIEN INGURUKOEN SEGURTASUNA BERMATZEA DA"

"ENTRENAMENDUAK ETA PARTIDAK EGIN AHAL IZATEKO SEGURTASUN NEURRI ASKO HARTU DITUGU"



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Aurtengo Giroko notak

Hiru asteko lasterketak onean eta txarrean eman duenaren errepasoa, puntuz puntu.

10 INEOS taldea: Tao Geoghegan Hart-ek irabazi du Giroa, eta bi etapa, eta taldeak beste bost. Lau Filippo Ganna Verbaniako kankailuarekin, eta beste bat Narvaez ekuadortarrarekin. Tourrean hartu zuten kolpea eta gero bueltan dira The Empire goitizenarekin ezagutzen den Ingalaterrako taldea.

9 Jai Hindley: Tropelean aurten gertatu den "baby boom"aren beste adibide bat. Zalegoaren begietara erabat ezezaguna, Taoren kasuan bezala denborak esango du bere podiuma urte bateko kasu puntuala izan den, edo gehiagorako lehengaita badaukan.

8 Arnaud Demare: Nagusitasun handia erakutsi du Nono-k Giroko esprintetan. Lau etapa irabazi ditu, eta maglia ciclamino-a ere soineratu zuen Milanen atzo, erregulartasunaren saria. Esprint batean izan ezik, besteetan hanka batekin irabazi du, eta Tourraren kaltean Giroa aukeratu izanari balioa eman.

7 Joao Almeida: Giroko animatzailea. Mendi handietan gora zer hobetua dauka, baina ez du inoiz etsi, eta Deceuninck-eko wolffpack-ak, otso taldeak, lan bikaina egin du portugaldarrarentzat. Laugarren, azkenean, sailkapen nagusian.

6 Pello Bilbao: Bikaina bere bosgarren postua. Podiuma lortzeko aukera azken egunera arte. Inork ez zuen txakur txikirik ematen gernikarraren alde, Tourra hain maila onean korritu ostean. Merezitako atsedena hartuko du orain.

5 Giroko antolakuntza: Hiru itzuli handietako ibilbide erakargarriena dauka, askogatik, eta Taoren garaipenak eta Hindleyren podiumak erakusten dute irekiena dela. Hater-ak beti hater. Ez Tourrak, ezta Vueltak ere, ez daukate Stelvio pasa zen eguneko etapa ikusgarri bat bermatzeko modurik, izan kontrolagatik, izan ibilbideek ez dutelako ematen, eta hori zaleak ez du inoiz ahazten.

4 Wilco Keldermann: Bai, eta ez. Podiuma, itzuli handi batean, baina ziur aski bere azken trena itzuli handi bat irabazten saiatzeko.

3 Vincenzo Nibali: Maldan behera. Onenengandik urrun, eta zeresanik eman gabe. Bere Giro tristeena, ziur aski.

2 Jakob Fulgsang: Kea.

Taldeakideak larrutu sare sozialetan, haiek lan egitera behartu sarri, eta gero zer da-eta, etapa garaipenen eta podiuma lortzeko lehiatik erabat jokoz kanpo. Itzuli handiak ahaztu eta itzuli txikietan saiatu beharko luke.

1 Elia Viviani eta Gaviria: Oso oso justu. Gaviriak positibo eman eta erretiratu egin behar izan zuen, baina lehen bi astetan garaipenetik oso urrun.

0 Giroa kakazten saiatu direnak, bigarren astean proba bertan behera geratu behar zela eskatuz publikoki, Covid-arekin kutsatzeko ustezko arriskuagatik. Thomas de Gendt bera, Education First taldea... Proba Milanera iritsi da, eta arazorik gabe. Jumbo-Visma ere erretiratu egin zen probatik... Steven Kruswijk proba irabazteko lehiatik kanpo zegoelako izan ote zen edo ez, hori irakurlearen baitan utziko dugu...



#BertsoVID19 Bertso-katean milatik gora lagunek parte hartu zuten. AIURRI

#BertsoVID19 egitasmoa, Tokikom Sarietako finalista

Sarietako bat irakurleek erabakitzeko aukera izango dute. Parte hartzeko aukera zabalik dago

Komunitatea TOKIKOM

Gertuko errealitatea aztertu eta inguru hurbilean gertatzen ari denaren berri ematen dute, arazo globalek eguneroko bizitzan duten eragina islatuz.

Baina, gainera, gertuko komunitatearen komunikazio tresna eta bozgorailu gisa ere funtzionatzen dute, eta publikoaren parte hartze zuzena sustatzen dute, bestelako komunikabideek amestu ere ezin dezaketen moduetan.

Toki komunikabideetako profesionalek ahalegin handia egiten dute egunero-egunero gertuko gaiak duintasunez lantzeko. Lan horren emaitzak bikainak badi-ra ere, sarritan erabat ezezagunak dira komunikabide bakoitzaren esparru geografiko mugatutik kanpo.

Egoera hori aldatu eta toki komunikabideetan egiten den lan aparta aldarrikatu eta eza-gutarazteko asmoz, TOKIKOMek TOKIKOM Sariak ematen ditu urtero, toki komunikabideetako lanik onenak gizarteratzeko asmoz.

2020ko finalistak

Bosgarren urtez jarraian, eta inoiz baino baldintza bereziagotan, 2020an ere TOKIKOM Sariak banatuko ditugu, toki komunikabideetan egiten den kazetaritza lan bikaina aldarrikatu eta gizarteratzeko. Urtero bezala, azken 12 hilabeteetan euskarazko toki komunikabideetan argitaratutako azalik, edukirik eta ikus-entzunezko onena sarituko ditugu. Aurten gainera, komunitatearen saria ere eman nahi dugu: komunikabideon irakurle, ikus-entzule, erabiltzaile eta lagunok erabakitakoa.

Aiurri, finalista

Aiurrik lan ederra egin du konfinamenduak iraun duen bitartean komunitatea dinamizatzeko eta, ikus-entzunezko produktua gisa dituen mugen gainetik, txalotzeko da formatua asmatzeko bizi eta azkar ibili izana, eta oso baliabide gutxiarekin parte-hartze eta dinamika handia lortu izana.

Azaroaren 8ra arte dago zabalik finalistaren artean gogokoena aukeratzeko epea. Parte hartu nahi?

Hilerriko bisitaldia aurreratzeke deialdia

Igandean santu guztien eguna ospatuko da. Erakundeek azken egunera arte ez itxaroteko erregua egin dute. Koronabirus garaian udalek protokolo zorrotza ezarri dute, pertsonen joan-etorrian pilaketak sortu ez daitezen



Urnietako hilerria. UDALA

Erredakzioa URNIETA

Birus garaian, hilerrietara sartu eta ateratzeko ibilbideak seinaleztatuak dituzte. Baita sarrera eta irteera bereizi ere.

Andoain

Andoaindarrei arduraz jokatzeko deia egiten zaie, hilerriara egin beharreko bisita alde aurretik antolatu dezaten, jendearen mugimenduak ahalik eta modu eraginkorrean kudeatu ahal izateko: "Andoain egoera berezia bizitzen ari da COVID-19a dela eta, honenbestez, jende pilaketak ekidin beharra dago".

Hiribus zerbitzu berezitua eskaintzen ari dira aste osoan. Helburua bisitaldia aurreratzea baita, jende pilaketak saihesteko. Larunbata bitarte busa izango da goizeko 10:30ean eta 11:30ean. Eta arratsalde 16:00tan eta 17:00tan Sorabillatik. Igandean bus zerbitzua areagotuko da, honako ordutegiarekin: 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 15:30, 16:30, 17:30.

- Aparkalekua: Gehienez ere aldi berean 30 auto uzteko baimena emango da.
- Egonaldia: 30 minutuko egonaldia egiteko aukera izango

du, ezingo da hilerrian denbora gehiago igaro.

- Gel hidroalkoholikoa: Eskura-garri egongo da, sarreran eta irteeran.
- Protokoloa: Hilerriko sarreran neurri berriak ikusgai jarriko dira eta baita ere hilerri barruan jarraitu beharreko ibilbideak, segurtasuna behar bezala bermatu ahal izateko.

Urnietako

Santu Guztien Eguna igandean bada ere, Udalak lankidetzak eskatzen die herritarrei, eta denak egun horretan ez joateko eta pilaketak ekiditeko, aurreko egunak ere baliatzea gomendatzen die. Udal langileak eta Udaltzainak bertan izango dira, eta euren argibideak zorrotz jarraitzea eskatzen zaie herritarrei. Ondorengoak dira harturiko neurriak eta zorrotz bete beharko direnak:

- Aparkalekua: kotxez joan nahi dutenentzat aparkalekua ahalbidetuko da Erratzuko industriagunearen hasieran.
- Sarrera eta irteera: Sarrera hilerriaren beheko partetik gauzatu beharko da, eta irteera berri, goiko aldetik.

- Gel hidroalkoholikoa: bai sartu aurretik eta baita irteten aurretik ere gel hidroalkoholikoa erabili beharko da eskuak garbitzeko.
- Distantziak: pertsonen arteko distantziak gutxienez 1,5 metrokoa izan beharko du momentuoro.
- Musukoa: musukoa jantzita eraman beharko da momentuoro.
- 6 pertsonako taldeak: familiei talde handitan ez gerturatzea eskatzen zaie. Gehienez 6 pertsona egon ahalgo dira multzo bakoitzean.
- Ibilbidea: jarraitu beharreko ibilbidea markatuta egongo da.
- Egonaldia: kanposantuan ahalik eta denbora gutxien igarotzea eskatzen da, gehienez ordubete egon ahalgo da.
- Bestelako neurri batzuk ere hartu dira, hala nola, iturriak itxe. Beraz, egun horietan loreak ureztatzeko edo eskuak garbitzeko ura behar duten pertsonen etxetik eramatea gomendatzen zaie. Era berean, partekatu daitzekkeen material guztiak erretiratuko dira: eskailerak eta ureztagailuak, besteak beste.

BOZKATU SARIKETAN

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA





Musikalaren afitxa. LESFIGURETES

Ekitaldi gehienak bertan behera geratu dira

Basteroko eta Sarobeko jarduera eten egin da. Urnietako musikalaren sarreraren dirua itzuliko da

Erredakzioa URNIETA

"Jimena, ¿y ahora qué?" musikalera sarrera eresia zuten herritarrei dirua itzuliko zaiela iragarri du Urnietako Udalak. Sarrerak online erosi dituztenei zuzenean ordainketa egindako kontu edo txartelera itzuliko zaie dirua, eta sarrerak Sarobeko leihatilan erosi dituztenen kasuan berriz, sarrera aurkeztuta leihatilan bertan bueltatuko zaie.

Ondorengo asteetako ekintzen sarrerak ez dira salmentan jarriko momentuz. Antolatzeak aukera ikusiko balitz, datozen egunetan jarriko lirakele sarre-
rak herritarren eskura.

Poxta Zaharrek antolatutako kontzertua

Gauzak ondo, Poxta Zaharrek antolaturiko JMartina eta Ameba taldeen kontzertua datorren azaroaren 27an egitea aurreikusi da.

HITZORDUAK

UDAN ZEHAR EKITALDIAK AIURRI.ESU GUNEAN ZABALDUKO DIRA. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 29

ANDOAIN Bus zerbitzua hilerrira

Jende pilaketak saihesteko, Udalak Hiribus zerbitzu berezia ezarri du. Pilaketak saihesteko, Udalak aurtengaraiz ibiltzeko deia luzatu die herritarrei. Bus ordutegia: 10:30, 11:30, 16:00, 17:00.

Ostegunetik larunbatera.

ANDOAIN Euskaraldia

Kale Nagusiko ZASA denda itxita dagoenez, Euskaraldian izena emateko aukera internet bidez eskaintzen ari dira.

Izenematea.euskaraldia.eus.

ANDOAIN Udal batzarra

Udalaren osoko ohiko batzarra. 19:00 Udaletxea.

ANDOAIN Argazki-erakusketa

Balerdik Afrikan osatutako bilduma. *Txindoki taberna.*

ESKUALDEA Errigora

Nafarroako euskararen aldeko ekimena, hango elikagaiekin osatutako saskien salmentaren bitartez.

Erosketa: Errigora.eus.

ANDOAIN Ikastaroa

"Gure ondorenak berr-ikusten ikastaroa". Azaroaren 19an hastekoa da. Informazio gehiago Udalaren Berdintasun sailean.

Izen-ematea: 943 300 830.

OSTIRALA 30

URNIETA Oharra

Marisa Taberneroren ipuin kontaketa saioa bertan behera geratu da. Osasun alarma egoera dela eta, asteburu osoko ekitaldiak bertan behera geratu dira.

Lekaio. Bertan behera geratu da.



Aurtengo lehiaketaren gaia koloreak dira. ASIER ROMO

ANDOAIN Udal egutegia osatzeko argazki-lehiaketa

Andoingo Udalak datorren urteko egutegia herritarren partaidetzarekin osatu nahi du. Lehiaketa baten bitartez 12 argazki aukeratu dira, eta saridun bakoitzak 100 euro jasoko ditu. Andoingo koloreak dira laugarren edizio honetan aukeratu den gaia. Argazkiak argitaratugabeaizan behar du, eta egile bakoitzak gehienez ere 5 argazki aurkez ditzake, beti formatu horizontalean. Parte hartzaileak 16 urtetik gorakoa izan behar du. Informazio gehiago: www.andoain.eus webgunea.

Azken eguna: Azaroak 1. Saridunen berri emateko eguna: Azaroak 15

URNIETA Kontzertua

JMartina eta Ameba taldeen emanaldiak bertan behera geratu dira.

Sarobe. Bertan behera geratu da.

LARUNBATA 31

ANDOAIN Lehiaketa

Gazte Lokalak antolatuta, "Gomendatzen dizut... lehiaketa. Zein da zure udako plana? Kontaiguzu!". 70 euroko saria banatuko dute. Parte hartzeko informazio gehiago: gazteinformazioa@andoain.eus.

Urriak 31, larunbata. Azken eguna.

ANDOAIN Zinema

Asteburu osoko emanaldiak bertan behera geratu dira, asteburu osoan.

Bastero Kulturgunea.

URNIETA Musikala

"Jimena ¿y ahora qué?" musikala bertan behera geratu da.

Sarobe. Bertan behera geratu da.

IGANDEA 1

ANDOAIN Bus zerbitzua hilerrira

Azaroaren 1ean hilerrirako sarrera mugatu egingo dute, aldi berean 30 autoko muga ezarri dute aparkalekuan. Hiribus zerbitzu berezia. Ordutegia: 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 15:30, 16:30, 17:30.

Azaroak 1, igandea. Hilerrira.

ANDOAIN Argazki lehiaketa

Udal egutegia osatzeko lehiaketa martxan. Aurtengo gaia koloreak dira.

Azaroak 1, igandea. Azken eguna.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Zorionak Ane

Ane Muñozek 6 urte egin ditu urriaren 28an. Zorionak eta jarraitu beti bezain zoriontsu! Etxekoak.

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Aiurri bidez.

• Webgunea: www.aiurri.eus.

• Emaila: diseinua@aiurri.eus.

• Whatsappa: 619 163 537.

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantseseak klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak. **693 692 823 - 665 719 827.**

Bederatzi urteko haurrak, **ukelelea** ikasteko eskola partikularrak hartuko lituzke, Andoainen. **650 341 108.**

SALGAI

Volkswagen Passat 1.6 Diesel 110cv 2014koa salgai, 172.000 km. Prezio ona. **659 848 574**

MERKATU TXIKIAN PARTE HARTZEKO

Emaila: diseinua@aiurri.eus
Whatsapp: **619 163 537**
Tel.: 943 300 732
Bulegora etorrita: Arantzibia 4-5, behea. Andoain

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 31, igandea 1

Monfort: Aita Larramendi, 26. 943 300 913. Andoain.

URNIETA

Larunbata 31, igandea 1

Gomez Bravo: Nagusia, 14. 943 554 892. Hernani.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000. Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Udaltzaingoa: 943 300 819. Osasun zentroa: 943 006 670. Ertzaintza: 943 53 88 40.



VUELTA AIURRI.EUS | @aiurri



egiten duguna gara

URRIAK 24 -
AZAROAK 12



errigora.eus



SASKI BELTZA

betikoa

ORBURUAK · PIKILLO MARMELOA · PIKILLO PIPERRAK
ZAINZURI ZURIAK · TEILAK · TOMATE FRIDITUA
MERTXIKA ALMIBARRETAN · OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA · KARDUA
MAHATS-ZUKUA · BOTILA ARDOA · POTXAK · PIPER-MAMIA



SASKI BERDEA

ekologikoa

TXIXIRIOAK · ARDO-OZPINA · OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA
BARAZKI-MENESTRA · PASTA · ORBURUAK
PIKILLO PIPERRAK · ARROZA · ZAINZURI ZURIAK
BOTILA ARDOA · UDARE-ZUKUA



SASKI ZURIA

berezia

ORBURUAK · PIKILLO PIPERRAK · ZAINZURI ZURIAK
BOTILA KRIANTZA · TXOKOLATEZKO ZIGARRETA
PATXARAN-PASTAK · PATXARANA · OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA
ARDO ZURI APARTSUA · ARBENDOL-POLBOROIAK

+ Korrikaren
katilua



50+5=
55€

+ Seaskaren
egutegia



60+5=
65€

+ D ereduaren
haziak



70+5=
75€